

Urriaren 21ean
URTEAN ZEHARREKO 29. IGANDEA

DOMUND: Alda ezazu mundua

Agurra

Jesus Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Misioen Mundu Jardunaldia, Domund eguna, ospatzen dugu gaur, “alda ezazu mundua” goiburuarekin. Jainkoa ezagutzen ez duten guztiei Ebanjelioa eramateko gonbidapena jasotzen dugu, beraz. Berri Ona zabaltzen badugu eta gizarte zuzenagoa eta senide-giro handiagoa duena lantzen badugu, aldatukoa da mundua. Saia gaitezen gure ahalegin xumearekin hori gerta dadin eta Jainkoa mundu guztian ezagutua izan dadin.

Misiolariekin bat eginda egingo dugu dena; oso gogoan izango ditugu gaurko ospakizun honetan

Damu-otoitza

Jainkoak gizaki guztiak salbatzea nahi du eta egia ezagutzera iristea; eska dezagun Jesu Kristorengan dohain bezala ematen digun grazia salbatzailea:

- Jesus Jauna, galdua zegoena bilatzera etorria: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zeure bizia guretzat eman duzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gizon-emakume guztiak biltzera etorria: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

(“Herrien Ebanjelizatzerako” A - Meza. Meza liburua 721-722. orr.)

**Jainko Jauna, zure Semea bidali duzu mundura egiazko argitzat;
isuri Beronek agindutako Espiritu Santua,
gizon-emakumeen bihotzetan egiaren hazia erein
eta fedearen aitormena sortarazi dezan;
eta egizu, denak, Bataioaren bidez,
bizi berrira jaio daitezela,
ezure herri bakarrean sartzea iritsi dezaten.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Boterea, dirua, aberastasuna... modan dauden gauzak dira, noski. Jainkoaren Hitzak egiten digun gonbitea, ordea, zeharo desberdina da: zerbitzua, eskuzabaltasuna eta elkarren harremana dira Jesusen jarraitzailearen benetako jarrerak.

Lehenengo irakurgaia (Is 53, 10-11)

Isaias profetaren liburutik

Jaunak nekeetan lehertu nahi izan zuen. Bere bizia ordain ematen badu, izango du ondorengo ugari, luzatuko zaizkio egunak, beteko da Jaunaren nahia haren bitartez. Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta aseko da. Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak zuzentasuna emango dio askori, haien hutsegiteak bere gain hartuz.

Erantzun-salmoa (Sal 32, 4-5. 18-19. 20 eta 22)

Gu - re ar - te - ra be - tor, Jau - na, zu - re be - ti -
ko bi - hotz o - na.



Zuzena baita Jaunaren hitza,
leiala Hark egin duen guztia.
Zuzen eta bidezko dena du maite,
Haren graziaz lurra dago bete. R/.

Hara, Jaunaren begiak beldur diotenengana,
Haren maitasuna itxaroten dutenengana;
haiek baititu heriotzatik aterako,
eta gosetean aseko. R/.

Gure bihotza Jaunaren zain dugu,
lagun eta babes Bera baitugu.
Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,
Zugan baitugu gure uste ona. R/.

Bigarren irakurgaia (*Heb 4, 14-16*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Senideok: Jesus, Jaungoikoaren Semea, dugu zeruan sartu zen apaiz nagusi handia; eutsi diezaiogun, beraz, sinesmen aitormenari; gure apaiz nagusia ez baita gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait; baizik eta geure antzera gauza guztietan aztertua, baina bekatutik garbi.

Goazen, beraz, uste osoz, graziaren aulkira; errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango digun mesedea aurki dezagun.

Aleluia (*Mk 10, 45*)





Gizonaren Semea besteak zerbitzatzera etorri da,
eta bere bizia askoren erospen sari ematera. R/.

Ebanjelioa (*Mk 10, 35-45*)

Homiliarako argibideak

Alda ezazu mundua (Ikus Aita Santuaren mezua lagungarri honen hasieran)

Gaurko Ebanjelioan, Jesusek Bere egitekoa, Bere misioa laburbiltzen du hitz hauekin: «Gizonaren Semea ez da etorri besteen zerbitzuak hartzera, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erospen-sari ematera». Mesiasen apaltasuna azpimarratzen da honela, Bere burua «gizonaren Seme» bezala aurkeztu baitu, gizaki guztiekin duen elkartasun sakona adieraziz. Zerbitzua hartzera ez dela etorri aldarrikatzen du handikiro, bizia emateraino zerbitzatzera baizik. Jesus da, egiaz, guztien erruak bere gain hartu dituen Jainkoaren Zerbitzaria.

Horrexegatik aurkezten du Hebrearrei egindako epistolak apaiz nagusi moduan, naiz eta apaizgo hori itun berriaren apaizgoa izan eta ez Jerusalemgo tenpluarekin zerikusia duena. Gure ahultasunak Beregan hartuz, Aitarenganaino iristeko «zeruetan sartu zen» Hura da Jesus. Horregatik dugu itxaropena «errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango» digu eta.

Mundua alda dadin bizitza ematea. Ebanjelioan aukera baten aurrean jartzen gaitu Jesusek: edo beren boterearekin zapaltzen gaituen boteretsuen alde gaude edota guztien zerbitzura jartzen gara askoren salbamenerako. Eta honela jokatzeko arrazoi bakarra ematen digu, bere bizimodua: Gizonaren Semea ez da etorri zerbitzua hartzera, zerbitzatzera baizik.

Beraien eskaintzagatik eta ebanjelizatze lanean egiten duten lanagatik miretsiak dira misiolariak; toki desberdinetan, sorterritik urruti, eta egoera oso zailetan bizi dira. Baina garbi dute bere egitekoa: Jainkoaren Hitza eta Jesu Kristo Salbatzailea hots eginez gizakien bizimodua hobetzea, Jainkoak bere seme-alabentzat nahi duen duintasun maila bideratuz. Munduan, denok etxeko senti gaitezen lortzeko bideak lantzea eskatzen du ebanjelizatze lanak. Misiolariak egiteko horretan nekatzen dira, gastatzen eta akitzen.

“Gazteekin batera eraman diezaiegun denei Ebanjelioa”. Hori hausnartzen ari dira egun hauetan gotzainak, gazteei eskainitako Sinodoan eta horixe da Frantzisko Aita Santuak Domund eguenerako bere mezuan darabilen gaia. Gazteek, bihotz sutsuz bizitzaren zentzua eta betetasuna aurkitzea adierazten dute eta, honela, “kutsatuz” fedea pozez eta gogotsu zabaltzen dute, itxaropen beharra duen munduan.

Jesuse Betleemen jaiotzeak aldaketa ekarri zion munduari. Jainkoa Jesusengan gizon egin zen, Jesusengan haur egin, munduan, gizakiok, begirada garbia, maitasun-egintzak eta itxaropen-hitzak izan ditzagun; azken batean, munduak aurrera egin dezan Jainkoaren maitasun egitasmoaren arabera.

“Ni egitekoa –misioa– naiz lur honetan, eta horretarako nago mundu honetan” (EG 273). Elizan misio egintzan murgilduak gaude guztiok. Hori gogoratu zigun Evangelii Gaudium aholku-hitz apostolikoak eta horixe errepikatzen dugu Domund Jardunaldi honetan: “Ni misio naiz... argitzeko, bedeinkatzeko, biziartzeko, altxatzeko, sendatzeko, askatzeko”.

Etetik urruti Ebanjelioaren poza zabaltzen duten misiolariak gure egintzak aberasten dituzte eta guretzat eredugarri dira: doako eskaintzaren eredu.

Domund Jardunaldiak mundua alda dezake? Bai. Ebanjelioa eskuan izanik bizitako misioak aldaketa dakar: beldurra ausardia bihurtuz, iluna argi, mehatxua batasun... eta eroria dagoenari altxatzen laguntzen dio eta bidean jartzen du duintasunez ibil dadin. Misiolariak egiten dute hori.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz gizaki guztien ona nahi duen Jainkoari:

- Jaunak fededunen bihotzak sutu ditzan, Berri ona zabalduz gizaki guztien salbamena eta poza bilatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herriak eta arrazak zatitzen dituzten oztopoak gaindituz, gizadi osoa berdintasun eta justiziaz bizitzen saia dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Misiolari guztien alde, Jesusen antzeko izatea bedi beraien poza, Ebanjelioaren zerbitzuan besteentzat biziz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etorkinak eta iheslariak, gizarteak baztertzen dituenak eta abandonatuak diren guztiak senti daitezen Jaunak babestuak eta guztiok onartuak. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoak bere maitasunean sendo gaitzan, elkarren zerbitzari leialagoak izanik Kristoren antz handiagoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Zure Semearengan eman diguzu, Jauna, behin betiko eskaintza egin duen Apaiz Nagusi bakarra; entzun gure otoitzak eta egizu beti Zure nahia egiten saia gaitezela, Haren eskaintzan parte harturik betiereko mahaira iritsi gaitezten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean gaur DOMUND dela gogoratur.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Erospeneko sakramentuaz janaritu gaituzu, Jauna;
betiko salbamenaren janari honek
gorde gaitzala beti egiazko fedean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**